

egolen ziran, gitxienez beintzat «salbabida» izenagaz ezagutzen diran kortxozko kurpillak. Gaur ez dago ola-korik.

*Gaur olako zoritzar bat gertatzen danean, zer esana, marmarrarra bai izaten dogu, baiña besterik ez. Lenago lez alako edo olakua euki ba'gendu! Baiña asmu onurakorrik ez. Aiziak eruaten dabezan itzak baiño geiago egin biar litzateke. Iñor baiño lenago arrantzaliak jagi bear dira eurentzat meset-*

degarri litzatekezan erabagiak artzeko  
eskatuaz, iñok baiño geiago eurak ja-  
katzen dabe arazo orretan da.

Baina arrantzaliaz gaiñera, itxasua, gaz zer-ikusia dauken gaiñontzeko guztiak be arduratu bearra dantza onetan. Alegin guztiak egin behar dogu guzti-guztiok itxasuari gizoen bizitzak kentzeo. Balio andikoa iai dogu giza-bizia, errez-errez, galtzen teko.

## Kamīnāzpi

# Euskalduna Bertsolari

Era askotara uts-azo oi dogu geure berrrena. Guk euskaldunok bertsoz eta olerkiz gauzatzen. Era erreza ete? Ala zailla? Jakin ez, nimbait. Gentarrak eta ez diranak or-emen ha-dira euskeraz bertsoak egitea azuzkabide erreza dala aizeratzen dabenak. Baina, nik uste, gainetiko izkuntza zar ta gazteetan be euskeran beste erreztasun edo zailitasun idoro daikegula bertsoak korapilitzeko. Zelako bertsoak oretu, oruntzea. Olerkietan batzuk —egunero dakusgu anazal ta mamin eder dira; beste batzuk, gainetik polito asko egiñak izan arren, gai urri ta zirtzilla dabe gunekotzat.

Alan eta guzti be, euskalduna bertsolari dogu, ta bertsolari jator. Eta olerkari? Orretan be ez doa atzenengo; pentsamenduz ta biotz-ondoz gizonki jokaturik, iza-diko zer guztietan daurkigun ederra jaso ta berenez, irudikizunaren kemena ta barne-suaren leia batean alkortuz, eder barria sortzen dakiana dogu.

Eta ez dau au geure gurari zindoaren alderdi bakarrik, egiaren dizdirak erraiñutsa baiño. Euskalduna, erriz leku medarraren jabe izanda he, antze ta arte guztietan buru-zut eta arro agertu izan da gizaldiak zeat. Au ez diñogu arrokeriz ziur asko dalaiko baiño. Alan be, artobero usaiña uxatzera egoki yaku ta ona gai ontaz zer di-

rauskun Hilekmanek Europa'ko errizagarrina deritxola "Euzko-Gogoa"n argitaraztak emondako artikuluuan (*Ikus*, 1959, 34. orrialdean).

«Aintzianako oiturak —diño— bizirik gel ditu dira Euskalerrian. Ezaguna da euskal folklorea; Europa'n berdinik ez du. Otre izaz gaiñera, euskal artea indartsua da. Europa'n erri gutxi dira, Euskal-erriak bezela, bere «bertso» ta abesti bereiziak dituztenak. Abesti oien etorrera ta egilleen izenak, ezagun-gaitzak ditugu. Norberak ikusi ta entzun bear ditu bertsolari oiek, bertsoak nolakoak diran eta euskalduneri zein maiatagarri zaien jakiteko. «Abeslari ta azkatua da gizonas», zion bein Herder'ek. Brñita arriski bat dago; gezurrezko kulturak aintzianako goi-arnas ori itotzen dute. Erri gazte guztiek erri-abestiak izan ditute, eta aldreibez...: erri bat gaztea da, emi abestiak baldin ba'ditu. «Koblakaria» ta «Bertsolariak», gertu gabeko bertsoak botatzen dituztenak, nunai arkitzen dira. Bantzuetan semeak ondoretzen dute aitaren bertsoetarako etorrira.

«Eusko-olerkiak biotza ukitzen dute; alare ez da erreza aren era itz gutxitan esaten. Olerki tx abesti alkarturik daude. Bertsolariak kantari esaten dituzte beren bertsoak. Doñnak ekartzen die bertsoen neurria; abestu gabe ezin. Bertsoak bat-ha-

team bururatzetan zaizkie ta doiñuz biribil-  
tzen dituzte. Bertsolariak ez du pentsatzen  
bertsoen silabatzaz; ezta aien bukaeraz ere,  
\*puntoak zuzentzen die bidea.  
\*Inoiz ezin diteke bertsoen bukaeran itz-  
bera ipini; jendeak bereala igarriko luke  
ta hertsolariaren izena gutxitu. Bertsolari  
auek oroipen siñisgaitz bat dute. Bein era-  
billitako itz-eserak betiko gelditzentzaiz-  
kie, eta alaxe ez dute arriskorik olerki ba-  
tean, naiz-ta luze izan, lengo esaerak berri-  
pintzeko. Beraz, bein entzundako ber-  
tuera erantzun egokia neke nundirik gabe  
ematen die.

«Sarritan izaten dira sariak hertsolari onenentzat. Orduan jendea edo epai-batzar batzek banatzen ditu sariak. Bertsoak, naizta batzuetai naigabezkoak izan, ia beti satirikoak izaten dira. Euskalduna jatorriz oso zentzuduna izan arren, satiri (ziri-olerki) zalea da. Bestetan, bertso-gaia aspalditik erabillitako alkarrizketa degu: Mendi Itxaso, Uda ta Ardon, Illargi ta Eguzkin, Erri ta Uri, Gizon ta emakume, Ezkondua Ezkonge, Etxeko-andre ta Jostuna, Biardun ta Bizargabekoa. Bai ta egunotan autombilla ta gurdin ere. Ez dago gauzik bertso auetan nitzaten ez danik. Bertsoak, gerriz, gutxitan izaten dituzte zortzi errera baino geiagoko...»

Kanpotar batek nekez esan legike itz gitian gauza eder geiago, Labur ta mamin-dogu aitaturiko irizlea.

Gure artean antxiñatik ezagutzen dira  
ertsolarien dema, norgeiago ta txapelke-  
ak. Eta iñoz ixil samar egonak ba'dira  
e, gaur bizi-bizi daukaguz, zein mugaz  
mendik zein mugaz andik. Bai ta, zorio-  
ez, olango bertso-eskola batzuk be ba-do-  
uz or-emen; esaterako, Bizkai'ko Muxika-  
reatza'n eta mugaz bestaldeko Ustaritz'en,  
ta ikasiak ez dakar kalterik iñoz be.

Gure erriak ao-sabai ona dan bertsolaren esanak epaitzeko; gure errink, gure ente zeak ondo daki hertsolariak bere eki-ldian esandako bertsoetatik zein dan onn zein txarra, pelota-jokuan nor atzelari ta nor aurrelari txar dan dakian lez, Senerezia dan ortarako, sortzetikoa munhait, elarri zoli bategaz batera. Ortik, ba, las- r konturatzen da, noz its egin dan, noz laba bat geiago sartu dan, noz amaiera oki-eza emon dan.

Bertsolariak, beraz, iru gauza oneik beinat gogoan izan bear ditu: 1) *Gaias*; 2)

*neurria, ta 3) azkena. Benetako bertsolari  
lanak aurretik izentatu edo emoten yakon  
gaia egoki ta zear-aldi andi barik azaldu  
ta erabilli bear dau; «izarra» gai baldin  
ba'da, jardun begio gozo izarki gaiari ta  
inolaz be ez «urari», au ez baita beraren  
gaia. Alderdi au arretaz zaindu edo ez, as-  
ko esan gura dau bertsoaren txukuntasu-  
nerako, eta norbere duintasuna goi-maillan  
euki izateko.*

Era askotatik doguz gaiak: sakonak, arinak, zaillak, barregarriak. Guztioan saiatzen dira gure hertsolariak. Gai sakonetan batez be euren sentimendu bixin, biotz berroa, burnu argia eta gauzak esateko modu berezia erakusten dauskue. Eta artekoak doguz Otaño, Xenpelar, Iparragirre, J. Zabaleta, P. Zabaleta, Lexo, Erauskin, Zaiburu, J. Zapirain eta gaiñerakoak. Xenpelar, ek, adibidez, onela diño here *Azken juizio eguna* deritxon bertso-saillean:

*Bi bide daude ezker ta eskubi,  
komeni da ikastia;  
aukera duude bata zerura,  
ipernuruko bestia.  
Gure anima Janingoikuari  
ainbesteraiño kostia,  
ta zer pena artuko duen  
Luzifer'en uztia!*

Bertsolariak askotan eleizan irakastegi edo pulpitudik izlati diarduen abade ta apaizen antza dabe, esakunez ta biotz garez. Errisk gainera eleiz-gizon bati lakoxtitza, begirune ta lotsa dantse zei edo plazierdian mai udaletxe-balkoitik bertso-urtiki diarduan bertsolariari, qui sakon barrenkietan jardutean beinik-bein.

Baina danez goitikan gure kobiazaleak barre naiz irriagaitan dira benetako hertsulari, auxe baitabe biotzez maite daben saindua. Ta jenteari be, ez izan zalantzik, auxe geiden ta beratiz atsegin ta eder yakona. Oinetan ari dirala, bertsolariak alkarrí jo ta ke, zirta ta zarta, czker-eskuma, aspertu bako eraso ta gudaketa baten lez, atzera ta aurrera, trebe ta gizon beti ekin oi dantza aterion lotsagartí izteko bildur barik. Taiau ontakoak zehuzan, euren gataiko onenak izan be, Biliñtx, Pello Errota, Txirrita Uriarte dimostarra ta besteak: gogo argi tximini zorrotz, ateraldi ta erantzun gogor-bizkar-zurrenak beti geru ta prest ebezan arrion eratsi ta menderatzeko. Eta gagoza

ziur, jenteak auxe nai, burruka bizia, ez  
tena lakoxe esan-erantzuna. Ona argibide  
bat Bilintx'en bertso-sailletan kimatuta:

Gozaiteko bear ditu  
sei edo zazpi baso.  
Zeiñek orduan oni  
lana egin-azo?  
Edan korriente, baiña  
pagatzia aztu.  
Ola tabernerria  
nola aberastu?

Eta gai ondoren neurria, au be gogoan  
josi bearra. Bertsoak alik eta ondoen, txu-  
kunen neurtu bear dira, ta iñoz bere ez,  
notbaitek gatz-txingarka esana dauanez, pi-  
latmonikaren auspo antzera, orain luze,  
gero estu. Ez, gauza guztiak dabez curen  
lege ta arauak, baita bertsoketak be, ta  
legeok bete bear zer osorik egitekotan.  
Esan dogu: gure erriak belarri zolia dautzu  
ta beingoan igarri daroa noiz dagoan ber-  
tsosilla artez neurrtuta ta noiz zabar ta  
ganora ezean, edo erdizka. Sekula be ez  
eben aintxiñakoak erdiko etenean utsik egi-  
ten, ez neurkeraz, ez amaijan. Ona esku-  
mende daukagun erri-olerki bat.

Xori kantatzale ejerra, nun ate hiz kan-  
[tatzen?]

Aspaldian nik eztiat hire botzik entzuten;  
Ez orenik, ez arterik eztiat eroditen  
Nun chitzaitan oritzen.

Emen ez daukazu itz bat bera lekuari  
dagonik. Etxe eder baten lez, arri zu-  
tiak zur ta egoki ipiñirik. Ez geiegi, ez gi-  
txiegi, oso betea. Eta orrek dagi habez be-  
antzezko ederra; mamiña ta azala, gogo ta  
señ, ertilariaaren barreneko iduri-su ta iz-  
kuntz giar trebea dabilzala alkari dautu-  
la, ez idi nagi antzean alkari sakaka.

Eta, azkenetan, ez da baztertu bear, ez u-  
iets itxi, bertsoen amaia, bere alderdi edo  
rra bai dau bartsoetako hardin-amaitzeak  
be. Geienean bigarren bertsoan egin oih  
amai bardinoko ori; eta, esate baterako,  
bigarren bertsoaren amaiera -tza (biotza)  
baldin ba'da, laugarrena ta gaiñontzeko bi-  
koak be, -tza ori dabentzakaz azkendu  
bear da, eriotza, garratza ta olakoakaz —ta  
nai —ba olakoren bategaz amaitu eketon,  
elegoke ondo.

Gure bertsolariak beukiez gogoan sarki-  
zunok. Eta curen berezko jit, sen, etorr  
ta bat-bateko doe zoragarriaz legeok alkari-  
turik, askozaz be bertsolariago izando dira  
autki. Gaiñera berezko jasa ikasiz apaindu  
bear da.

A. O.

